

**UNTZI MUSEOAREN 25. URTEURRENA - EGITARAUA**

- **Maiatzak 27, ostirala**  
Elena Odriozolak zuzenduriko ilustrazio tailerra. 2015eko Ilustrazio Sari Nazionala den artista “Emakumeak eta itsasoa” erakusketaren diseinu grafikoaren egilea da. Hezkuntza artistikoa eta diseinu grafikoa ematen duten zentroentzako eta interesa duten pertsona ororentzako zuzendua. Plaza mugatuak. Ordua: 17:00-19:00.
- **Maiatzak 28, larunbata**  
Museoko 25. urteurrenaren ospakizuna, urte hauetan zentroarekin kolaboratu dutenen omenez (dohaintzaileak, ikerlariak, kultur erakundeak, etab.). Bertaratutakoei aperitiboa eskainiko zaie. Gonbidapenarekin. Plaza Mugatuak. Ordua: 13:00etan.
- **Maiatzak 29, igandea**  
Emanaldi musikala Atzegiko taldearekin. Untzi Museoa 1991tik dabil Atzegirekin elkarlanean. Ordua: 13:00etan.
- **Maiatzak 31, eta ekainak 1 eta 2, asteartea-osteguna**  
Iñigo Salaberriak DSS2016EUko Labore programarako ekoiztu duen “Kaia/El Muelle” dokumentalaren proiektua. Donostiako kaiko arrantzako profesionalen eta bizilagunen ahozko testigantzak eskaintzen dituen dokumentala. Ordua: 17:30etan.
- **Ekainak 1, asteazkena**  
Orixe ikastolako ikasleentzako “Apaxi” ipuin kontalariaren saioa. Orixe Ikastolak hogeita bost urte hauetan Untzi Museoarekin harreman eta elkarkidetzatza estua izan du.
- **Ekainak 4, larunbata**  
Pasaiaiko bateleren dantzak: Museoaren kanpoaldean emanaldia. Ordua: 13:00etan.
- **Ekainak 14, asteartea**  
Donostiako Musika eta Dantza Eskolako “Atotxako flautisten” kontzertua.
- **Ekainak 15 – irailak 30**  
“Sirenak eta itsasgizon zailduak” udako tailer pedagogikoa. Tailer honetan mitoen eta lanbideen bitartez itsas munduan emakumei eta gizonei tradizionalki eman zaizkien paper ezberdinak aztertuko dira. Astialdi eta aisialdi taldeentzako zuzendua (udaleku irekiak, hizkuntza akademiak, etab.).
- **Ekainak 17, ostirala**  
“Itsasoko jendea” atal berriaren publikazioa webgunean, Museoak bultzaturiko ikerketak oinarri hartuta. Euskal itsasgizonen eta itsas munduko emakumeen paperaren inguruko sail ezberdinak izango ditu.
- **Ekainak 21, asteartea**  
“Ondarea, museoak eta generoa”. Generoaren eta museoaren inguruko tailerra. Euskal Herriko Unesco Katedrako Maider Marañaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Haizea Barcenillaren parte hartzearekin.
- **Ekainak 30, osteguna**  
*Itsas Memoria*, Euskal Herriko Itsas gaiei buruzko aldizkariaren 8. zenbakiaren edizio digitala. Bilduko dituen 36 ikerlanetan hainbat gai jorratuko dira: itsas historia, antropologia, ahozko testigantzen jasoketa, etab.